

❖ FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak funtziona dezan behar ditugun elementu garrantzitsuenak honela sailka daitezke: fisikoak, intelektualak, gizatiarrak eta finantziarioak.

● FISIKOAK

Erabiliko ditugun baliabideak honako hauek dira:

- 120 metro karratu dituen lonja bat, Villabonako larrea auzoan kokatua.
- Sare sozialak eta web-gunea eramateko ordenagailua.
- Mahaiak, aulkiak eta dekorazio-elementuak.
- Liburuak eta hauek ipintzeko apalak.
- Baxera eta sukaldeko elementuak.
- Kafe kapsulak birziklatzeko kutxak.

● INTELEKTUALAK

- Kafetegiaren izena (Kafegoxo), Patenteen eta Marken Europako Erregistroan erregistratuta.
- Informazioa bidaltzeko Euskadiko bezero begano, begetariano, ekologista eta irakurleen oinarri online bat egiteko ezagutzak.
- Bezeroak lortzeko, mantentzeko eta haiekiko komunikazio-harremanak mantentzeko merkataritza-trebetasunak.

● EKONOMIKO-FINANTZARIOAK

- 20.000 euroko lehen inbertsioa, lau bazkideen aurrezkietatik datorrena.
- Kutxabanken mailegu bat, negozio bat abian jartzeko orduan sortzen diren gastu nagusiei aurre egin ahal izateko.
- Laboral Kutxa gure negozioaren ekipamendua kudeatzeko finantzaketa posible bat izan daiteke, aseguruen, irudi eta papergintzaren, ekipamendu informatikoan, altzarien eta abarren arloetan.
- Gaztempresaren diru-laguntza posiblea 30 urtetik beherakoei negozio bat abian jartzeagatik.
- Langile autonomoei Laguntza Finantzariora Emateko LALF Programa. (Diruz lagundu daitekeen inbertsioaren zenbateko 15.000 euro baino gutxiagokoa izan beharko du).

- GIZAKIAK

- IRATI: Lidergoaren ikuspegia emango du, eta kafetegiaren alderdi ekonomikoez eta hazkundeaz arduratuko da. Energia-hornitzaileekiko harremanez eta finantza-erakundeekiko kudeaketaz arduratuko da.
- IRAIA: Material ekologikoak horintzaileekin kudeatzeaz eta material birziklatuez arduratuko da. Halaber, Iratirekin batera kafetegiaren eta hazkundearen alderdi ekonomikoez arduratuko da.
- LEIRE: Diseinuataz arduratuko da, menuak sortzen, liburutegiaren zatia sortzen, alderdi sortzaileaz eta publizitateaz. Halaber, jendaurreko arretaz eta haren jarraipenaz arduratuko da.
- IRUNE: Sukaldeaz, lehengaiak hornitzaileekin kudeatzeaz eta Leirerekin batera menuen diseinuaz eta horien elaborazioaz arduratuko da.